



BAZTANGO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO BILKURAREN AKTA: 2019/01/04

2019ko urtarrilaren 4ko 11:30ean Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordea lehenengo deian osatu zuen arauzko moduan deitu ondotik. **JOSEBA OTONDO** alkatea mahaiburu izanik, ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

- .- IÑIGO ITURRALDE
- .- MIKEL ORTEGA

Ez dira bertaratu / no asisten:

- .- FLORENTINO GOÑI
- .- MAITE ITURRE

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN EL DÍA 4/01/2019

En Elizondo y casa consistorial, siendo las 11:30 horas del día 4 de enero de 2019, se reúne el Ayuntamiento de Baztan constituido en Junta de Gobierno Local, en primera convocatoria, tras haber sido convocada la misma en forma legal. Presidida por el alcalde **JOSEBA OTONDO** y con la asistencia de los siguientes concejales:

Eta Ainara Vélez Ara idazkaria izanik.

Asistiendo como secretaria Dña. Ainara Vélez Ara

1.- AURREKO AKTAK

2018/12/14ko eta 2018/12/21eko Tokiko Gobernu Batzordeko aktak onartu dira.

Se aprueban las actas de las sesiones de la Junta de Gobierno Local de 14/12/2018 y 21/12/2018.

2.- ESKAERAK

2.1 Pedro Santesteban Loyartek MADERAS SANTESTEBAN SLren izenean, 2018/12/11n 2014an Landatxetako Zelaian kokaturiko oihan aprobetxamenduaren abala bueltatzea eskatu zuen. Aldeko ikuskatze akta ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du eskatutako abala itzultzea 2.855,20€. Akordio hau interesatuari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

2.1 Con fecha 11/12/2018 **Pedro Santesteban Loyarte** en representación de **MADERAS SANTESTEBAN S.L.**, solicitó la devolución del aval constituido para el aprovechamiento forestal sito en Landatxetako Zelaia en 2014. Vista el acta de inspección, la Junta de Gobierno Local acuerda la devolución del aval solicitado 2.855,20 €. Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas, para su conocimiento y efectos oportunos.

2.2 Pedro Santesteban Loyartek MADERAS SANTESTEBAN SLren izenean, 2018/12/11n, 2012an eta 2013an Gañekolan kokaturiko oihan aprobetxamenduaren abala bueltatzea eskatu zuen. Aipaturiko lanaren aldeko ikuskatze akta ikusirik, Toki Gobernu Batzordeak erabaki du, eskatutako abala itzultzea 980,06€. Akordio hau interesatuari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

2.2 Con fecha 11/12/2018 **Pedro Santesteban Loyarte**, en representación de **MADERAS SANTESTEBAN S.L.**, solicitó la devolución del aval constituido para el aprovechamiento forestal sito en Gañekola en los años 2012 y 2013, por un total de 980,06€. Vista el acta de inspección la Junta de Gobierno Local acuerda la devolución del aval solicitado. Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas y a la interventora para su conocimiento y efectos oportunos.

2.3 ANDER URROZ ALEMANEK 2018/12/12an Aniz alderdian esleitu zitzaion oihan aprobetxamendua ustiatzeko eta ateratzeko epemuga luzatzea eskatu du. Nafarroako Gobernu Ingurune Naturalaren Zerbitzuaren eta udal basozainaren aldeko txostenak ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

2.3 Con fecha 12/12/2018 **ANDER ALEMAN URROZ** solicitó una prórroga para terminar las tareas de explotación y extracción del lote forestal adjudicado en el paraje de Aniz. Vistos los informes favorables del Servicio del Medio Natural del Gobierno de Navarra y del guarda forestal municipal, la Junta de Gobierno Local acuerda:

- 1.- Eskaera baimentzea, 9 hilabeteko luzapena emanaz.
- 2.- Akordio hau interesatuari eta udal basozainari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

- 1.- Autorizar la solicitud de prórroga por 9 meses.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados y a los guardas forestales municipales, para su conocimiento y efectos oportunos.

2.4 AITOR GISASOLA LARRAZAK 2018/12/31n baimena eskatzen du bere lur eremuetan erleak eta astoak jartzeko. Eskaera ikusirik Toki Gobernu Batzordeak erabaki du: EZ baimentzea eskatzen duena, eskaeran ez baititu beharrezko datuak adierazi: animalia-buruak eta katastroko erreferentziak behar bezala identifikatu beharko ditu. Akordio hau interesatuari helaraztea.

2.4 Con fecha 31/12/2018 **AITOR GISASOLA LARRAZA**, solicita permiso para poner burros y colmenas en sus terrenos. Vista la solicitud la Junta del Gobierno Local acuerda: NO autorizar lo solicitado, por ser inexacta e insuficiente en cuanto a número de animales e identificación catastral. Deberá identificar correctamente estos datos. Notificar el presente acuerdo al interesado.

2.5 M^a DOLORES ECHANDI URIZek 2018/11/20an, 69. poligonoko 103. lur-zatiaren segregazio baimena eskatu zuen. Udal aholkulari juridikoak, Markos Erro Martínez letratuak 2019/01/03an emandako txostena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- 69. poligonoko 103. lur-zatiaren segregazioa baimentzea. Ordaindu beharreko tasa 246,99 euroko da.
- 2.- Eskatzaileari, udal aholkulari juridikoak, Markos Erro Martínez letratuak emandako txostena igortzea, akordio honen parte delako.
- 3.- Akordio hau katastroko arduradunari eta interesatuari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako

3. BESTEAK

3.1 MMUBk, 2018/12/04an eskatzen du udalarekin daukan 505,08€ko zorra epeka ordaintzeko baimena.

Eskaera eta Gizarte Zerbitzuak egindako txostena ikusirik Toki Gobernu Batzordeak erabakitzen du:

- 1.- Epeka ordaintzeko eskaera onartzea.
- 2.- Gizarte Zerbitzuak txostenean ezarritako baldintzak ezartzea, 20 € hilean 25-26 hilabetez ordainduz.
- 3.- Akordioa interesatuei helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako

3.2 LUIS ALFREDO VASQUES MUNANGOk 2018/12/28an Baztango herrietan salmenta ibiltaria jarduteko baimena eskatzen du, fruituak eta barazkiak saltzeko. Eskaera ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera ez baimentzea.
- 2.- Akordio hau interesatuari helaraztea, jakinaren gainean izateko eta ondorioetarako.

3.3 Alkateak Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi du Baztango Udalak (H)ILBELTZA elkarte eta Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin, euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz, HILBELTZA BEKA atera dutela, sorkuntza lana bultzatuz. Beka honen oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- 2019 HILBELTZA bekaren oinarriak onartzea.
- 2.- Akordio hau alkateari eta interesatuei helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3.4 Tokiko Gobernu Batzordeak 2018/11/16an hartutako erabakiaren bidez martxan jarri zen **Zokoa** alderdian oihan aprobetxamendua enkantearen bidez saltzeko. Oihan aprobetxamenduak 912,3 metro kubiko zur ditu. Bi eskaintza ekonomiko aurkeztu ziren Arpana Formación Forestal SL eta Larregoitia Egurrak SL. Sexteoa pasata eskaintza ekonomikoa hobetu gabe, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- **Zokoa** eremuan dagoen oihan aprobetxamendua, 912,3 metro kubiko zur dituen, Arpana Formación Forestal SLri esleitzea, 11.260 eurotan, BEZa kanpo.
- 2.- Akordio hau prozeduran parte hartu duten guztiei jakinaraztea, halaber esleipendunari eskatzen zaio baldintza pleguaren 10. puntuan eskatzen den dokumentazioa 7 eguneko epean udalean aurkezte.

2.5 Con fecha 20/11/2018 **M^a DOLORES ECHANDI URIZ** solicitó licencia de segregación de la parcela 103 del polígono 69 de Baztan. Teniendo en cuenta el informe del asesor jurídico municipal, letrado Markos Erro Martínez, de 3/01/2019, la Junta de Gobierno Local acuerda:

- 1.- Autorizar la segregación de la parcela 103 del polígono 69 de Baztan. La tasa a abonar es de 246,99 euros.
- 2.- Remitir el informe del asesor jurídico municipal, letrado Markos Erro Martínez, que forma parte del presente acuerdo a la solicitante.
- 3.- Notificar el presente acuerdo al responsable de catastro y a las personas interesadas, para su conocimiento y efectos oportunos.

3.1 Con fecha 4/12/2018 **MMUB** solicita al Ayuntamiento permiso para devolver la deuda que tiene contraída de 505,08€ a plazos.

Vista la solicitud y el informe de los Servicios Sociales, la Junta de Gobierno Local acuerda:

- 1.- Autorizar la solicitud de pago aplazado.
- 2.- Admitir la proposición de los servicios sociales de 20€ mensuales durante 25-26 meses.
- 3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos

3.2 Con fecha 28/12/2018 **LUIS ALFREDO VASQUES MUNANGO**, solicitó permiso para poder ejercer la venta ambulante de frutas y verduras en los pueblos del Baztan. Vista la solicitud, la Junta de Gobierno Local acuerda:

- 1.- Denegar la solicitud.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.

3.3 El Alcalde en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local informa que el Ayuntamiento de Baztan, en colaboración con la Asociación (H)ILBELTZA y la editorial Txalaparta, ha creado la BECA HILBELTZA para la difusión de la novela negra en lengua vasca y para la traducción a euskera del género de la novela negra. Las bases de la beca se publicarán en el Boletín Oficial de Navarra. La Junta de Gobierno Local acuerda:

- 1.- Aprobar las bases de la Beca Hilbeltza 2019.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.

3.4 Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 16/11/2018 se inició el procedimiento para la venta mediante subasta de un lote forestal sito en el monte comunal de Baztan, paraje "**Zokoa**", con un volumen de 912,3 metros cúbicos de madera. Presentándose dos ofertas económicas, habiendo sido sometida la misma a sexteo sin mejora de propuestas, la Junta de Gobierno Local acuerda:

- 1.- Adjudicar el lote forestal sito en el monte comunal de Baztan, paraje "**Zokoa**", con un volumen de 912,3 metros cúbicos de madera a Arpana Formación Forestal S.L, en importe de 11.260 euros IVA excluido.
- 2.- Trasladar el presente acuerdo a los participantes en el procedimiento, requiriendo al adjudicatario que acredite los aspectos indicados en la cláusula 10 del Pliego de Condiciones en el plazo de 7 días.

3.5 Tokiko Gobernu Batzordeak 2018/11/16an hartutako erabakiaren bidez martxan jarri zen **Urtzel eta Sagardegi** alderdian oihan aprobetxamendua enkantearen bidez saltzeko. Oihan aprobetxamenduak 3106,2 metro kubiko zur ditu. Eskaintza ekonomiko bakarra aurkeztu zen. Sextea pasata eskaintza ekonomikoa hobetu gabe, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- **Urtzel eta Sagardegi** eremuan dagoen oihan aprobetxamendua, 3106,2 metro kubiko zur dituen, Larretxea Egurrak SLri esleitzea, 47.500 eurotan, BEZa kanpo.

2.- Akordio hau prozeduran parte hartu duten guztiei jakinaraztea, halaber esleipendunari eskatzen zaio baldintza pleguaren 10. puntuan eskatzen den dokumentazioa 7 eguneko epean udalean aurkeztea.

3.6 Tokiko Gobernu Batzordeak 2018/11/16an hartutako erabakiaren bidez martxan jarri zen Lixketa alderdian oihan aprobetxamendua enkantearen bidez saltzeko. Eskaintza ekonomikorik ez zenez aurkeztu Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du oihan aprobetxamendua berriz enkante bidez saltzea, %10eko beherapena ezarriz.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 12:00etan alkateak bilera amaitutzat eman du. Nik, idazkari naizen honek, hori guztia idazten eta ziurtatzen dut.

3.5 Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 16/11/2018 se inició el procedimiento para la venta mediante subasta de un lote forestal sito en el monte comunal de Baztan, parajes "**Urtzel y Sagardegi**", con un volumen de 3106,2 metros cúbicos de madera. Presentándose una única oferta económica, habiendo sido sometida la misma a sexteo sin mejora de propuestas, la Junta de Gobierno Local acuerda:

1.- Adjudicar el lote forestal sito en el monte comunal de Baztan, paraje "**Urtzel y Sagardegi**", con un volumen de 3106,2 metros cúbicos de madera a Larretxea Egurrak SL, en importe de 47.500 euros IVA excluido.

2.- Trasladar el presente acuerdo a los participantes en el procedimiento, requiriendo al adjudicatario que acredite los aspectos indicados en la cláusula 10 del Pliego de Condiciones en el plazo de 7 días.

3.6 Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local 16/11/2018 se inició el procedimiento para la venta mediante subasta de un lote forestal sito en el monte comunal de Baztan, paraje Lixketa. Al no presentarse ninguna oferta económica, la Junta de Gobierno Local acuerda volver a sacar a la venta mediante subasta el lote forestal con un descuento del 10%.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión a las 12:00 horas, de lo que yo, la secretaria, doy fe.

ONIRITZIA / Vº Bº
ALKATEA / EL ALCALDE
JOSEBA OTONDO BIKONDOA

IDAZKARIA / LA SECRETARIA



